

Asturumendua

Asturuua hitzaren eratorria. Astroek eta *izarrek gizon-emakumeen bizitzan omen duten eragina, onerakoa nahiz kalterakoa, adierazten du.

Asuntzionistak

1843an Nîmes-en sorturiko *erlijioso-kongregazioa. S. Agustinen erregelari jarraitzen zaizkio, zerbait aldaturik. Beren alorren artean hauek dituzte bereziak: zaharretxeak eta eskolak, kristau argitalpenak, misiolaritza.

Aszesia

Greziarren artean, askesis deitzen zuten, atletek indarra, trebetasuna eta gorputzaren kontrola lortzeko egiten zituzten ariketak eta auresaioak.

Orokorki zera da: jan-edanetan, bizilekutan, loan, jantzitan, ondasunetan eta edonolako jolasetan eta batez ere sexuzko harremanetan eta orokorki biziera osoan erizpide eta jokabide hertsikorrek hartzea, haietaz baliatzea murriztuz edo aldi baterako haiei erabat uko eginez.

Filosofu estoikoek zentzu morala eman zioten horrelako jokabideari. Bide beretik, kristautasunak aszetismoa balioztatu du, norberaren borondatezko ariketa metodiko gisa, grina txarrak gaindituz eta *bertuteak lortuz joateko.

Erljioek, berriz, bereziki kristautasunak, balio handia eman izan diote, ariketa metodikoen, *hilduren, *barauen, bijilien eta bestelako *abstinentzia eta penitentzien bidez gorputza menperatzeari, arima edo izpiritua grina txarren trabetatik ateratzeko eta errazago Jainkoarekin bat egiteko.

Aszesiaren arrazoi erlijiozkoak ezberdinak izan ohi dira: materiaren txarra (*manikeismoa); munduaren itxura hutsezko izaera (*budismoa); kristautasunak, *munduaren ontasuna aitortzen du, baina *jatorrizko bekatuaren eta konkupiszentziaren ondorioz, baliozkotzat eta beharrezkotzat jotzen du aszesia.

Kristau-teologiak, hala ere, Jainkoaren grazia bera jartzen du edonolako aszetismoaren oinarrian, horrek inolako salbamen-baliorik izango badu.

Aszetika

Aszetimoaz ari den jakintza. Kristautasunak *teologia izpiritualaren partetzat dauka; baina berez, aszetika izan daiteke etika filosofikoaren gaia ere.

Ataraxia

Asaldura-gabezia esan nahi du grezieraz. Epikureismoaren etikako kontzeptuetako garrantziakoa da. Ekialdeko Elizek kristau-aszetikako kontzeptuetako bat adierazteko erabiltzen dute, sentsuen grina baretzea adierazteko, alegia. Kristau-izpiritubidearen lehen urratsa da, *kontenplazio mistikora iritsi aurretik.

Ik. Aszesia.

Ataria

Edifizioen baten sarrerako atearen ingurua, kanpoaldekoa nahiz barrualdekoa; honek etxeko gela ezberdinetara sarbideak ematen ditu. Erromatar arkitekturan atrium (gaztelaniazko atrio) izeneko barrutiarekin kidetasunik eta antzik badu, eta hori adierazteko ere erabiltzen da: Batetik, antzinako etxe italikoaren arkupea, bestetik, erromatar etxearen erdigunea, gehienetan kolomaz inguratua.

Antzinako kristau-arkitekturan, *basilikako naberako sarreraren aurrealdeko barruti karratu edo angeluzuzena, sarritan arkupez inguraturikoa, izan ohi zen ataria. Elizaratu aurretik barnebiltzeko lekutzat hartzen zuten hori. Hortik du bere jatorria geroko *klastroak.

Eginkizun beretsua betetzen dute hainbat kristau-elizetan ate nagusira sarbidea ematen duen arkupeak edota barrualdean *nabera igaro aurretik egon ohi den atebarruak. Elizataria izena ematen zaie horiei.

Ik. Erljiozko arkitektura.

Ate santua

Urte santua edo *jubileu-urtea ospatzen den elizetan sarrera berezi bat izan ohi da, *urte santuari hasiera ematean urte osorako irekitzen dutena eta gainerakoan adreiluz itxita egoten dena. Jubileua lortzeko ate horretatik sartu behar izaten da elizara.

Ateismoa

Grezierazko "a" (alfa) (=gabe) aurrizki eta theos (=jainkoa) izenetik eratorritako hitza da.

Jainkoaren izana hitzez eta egitez ukatzen duen irakatsia edo jarrera da. Hortxe dago gakoa: hitzez eta egitez edo positiboki ukatzean; horretantxe bereizten da beste jainkogabezi motetatik: Jainkoa aldebat uzten dutenen, edota gure gerenezko ezagumen mugatuaz gaindi dagoen ezer ezagutzeko ahalmena soilki ukatu egiten dutenen jarreratik, esate baterako. *Agnostizismoa deritza azken

jarrera honi; giza ezagumena, gizaki bera erabat gainditzen ez duenari, eta, beraz, datu ukigarri eta neurgarritan esperimenta daitekeenari lotuta dago, agnostizismoaren irakatsiaren arabera; Jainkoaren ideiak eta izateak, berriz, definizioz gainditzen dute gizakia.

Era askotakoak dira ateismoak, Jainkoaren ukapenerako abiapuntuak adina, edota Jainkoagandik begiratu nahi diren giza interesak hainbat, hura interes horien etsaitzat hartzen bait dute. Batzuren esatez, ateismoak baino areago antiteismoak dira horiek: gezurrezkoztat hartzen diren, eta, beraz, ukatu egiten diren, jainkoak hainbat, alegia.

Nolabaiteko bereizkuntza apetazkoa eginenez, honako ateismoak bereizi ohi dituzte: zientifikoa, gaur dagoeneko zaharkitua, zientziako arrazoientzat, besteren ustez sasi-zientziakoak direnengatik, Jainkoa ukatzen duena; humanista edo gizatiarra, non gizon-emakumeen defentsak Jainkoaren ukapena bait lekarke, hau haren arerio omen delako, edota soilki Jainkorik balitz izan, hainbeste neketan, gabezietan eta heriotzean galduarik utziko ez omen lituzkeelako gizon-emakumeak.

Ateismo gizatiarraren barruan bertan *humanismoak diren hainbat mota daude; horien artean, batetik, ateismo marxistak du garrantzi historiko eta soziologiko berezia, gaur hain erabakiorra ez bada ere *marxismoaren irakatsian eta praxian; bestetik, ateismo nikilistak, balio eta printzipio guztiekin batera Jainkoa ere ukatzen duena.

Ateismoa, gertakari modernoa dela esan daiteke, gizartean hartu duen hedadurari eta berorren erasokortasunari begiratzen badiegu. Ateoa betidanik izan dira, baina ez gaur diren bezain ugariak, ezta gaur bezain borrokalaria, Jainkoaren ideiare aurka borrokatzera behartutzat hartzen bait dituzte gaur beren buruak, zaindu gura dituzten balioren areriotzat jotzen dutelako ideia hura.

Jainkorik ez baillitza jokatzeko dutenen ateismo praktikoa deritzana ez da ateismoa, ideologiaren aldetik begiratu gero; bada, ordea, oso larria izan ere, *kristautasunaren ikuspegi erlijiozkoetik begiratu, kristautasunaren eskakizun oinarritzak delako, Jesukristoren Jainkoa sinesteak eskatzen duenaren arabera bizitzea.

Azken aldiari eztabaida bat zabaldu da: "kristau-ateismoaz" mintza ote gaitzeko, areago, horretaz mintzatu beharrean ote garren.

Jesusen sorreran, bizieran eta heriotzean oinarritzen da horrelako eztabaida:

batetik, *gizakundea zela eta, Jainkoa ezeztatu (hustu=kenosis) egin omen zen Nazareteko Jesusengan; bestetik, Jesusek, bere bizitzan, giza muga berezkoen eta berak bereturiko pobretasunak eta txikertasunak dakarten ahalik ezaren menpean ipini zuen bere burua; azkenik, gurutzeko heriotza. Guzti horiek Jainkoa Jesusengan benetan "hil" egin dela adierazten omen dute; eta, horrela ulertuz, mintza gaitzke "kristau-ateismo" benetakoz, nahiz eta oso berezia izan ateismo hori, zalantzarik gabe.

Ik. Humanismoa; Jainkoa; Jainkoaren bikaintasunak; Kritika (Erljioarena); Jainko bila; Teismoa.

Jesús Lezaun
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Athanasia

Grezieraz hilezkortasuna esan nahi du. Eliz guraso grezieradunen arteko kontzeptu teologikoa, kristau-salbamenaren helburua adierazteko.

Ik. Hilezkortasuna; Piztuera.

Atman

Bizia edo biziaren printzipioa adierazten du, bai *kosmosarena eta bai norbanakoa-rena. Kosmosaren "Ni" unibertsala eta gizakiaren "Ni" partikularra, biak adierazten ditu, eta biak daude elkarrekin loturik: Izan ere, "Ni" partikular hau, bizitza mundutarreko gorabeheren ondoren, "Ni" unibertsalaren batasunera bilduko omen da.

Horixe da, hain zuzen ere, giza salbame-na: materiak ateratzea eta "Ni" bere soillean eta garbian Atman handira biltzea.

Atmanek badu *judaisismoaren ruah-arekin kidesunak.

Ik. Hinduismoa; Brahman.

Atrizioa

Sin.: Beldur(rezko) damua

Teologia katolikoan bekatuena *damua da, giza arrazoitan eta bereziki ifernuratzearen beldurrean oinarritzen dena. *Teologia moralak askitatz jotzen du atrizioa, *penitentziako sakramentua hartzeko baldintza gisa. *Kontrizioa edo maitasun-damua bezala, hau ere teologiako kontzeptua da aurrenik, eta ez psikologiakoa.

Ik. Bekatua; Absolutzioa.

Atsegindegia

Ik. Paradisuia.